

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

4686

EBAZPENA, 2023ko urriaren 2koa, Joko eta Ikuskizunen zuzendariarena, joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko irabazi asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko balorazio batzordeko kideak izendatzen dituen.

Aztertu dugu Lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2023ko uztailaren 11ko Agindua, zeinen bidez joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko Euskadin irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko modua arautzen den (2023ko abuztuaren 10eko EHAA, 152. zk.).

Agindu horren 10.2 artikulua xedatzen duenez, aurkeztutako eskabideak ebaluatzeko Balorazio Batzordea sortuko da, eta Joko eta Ikuskizunen zuzendariak izendatuko ditu batzordekideak, ebazpen bidez.

Ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena egin eta egingo duten balorazio batzordeko kideak izendatzea.

Lehendakaria: Aitor Uriarte Unzalu, Joko eta Ikuskizunen zuzendaria.

Kideak:

- Pablo Casado Pascual, Joko eta Ikuskizunen Arabako Lurralde Bulegoko arduraduna.
- Jon Agirre Garai, Joko eta Ikuskizunen Bizkaiko Lurralde Bulegoko arduraduna.
- Pilar Etxezarreta Villaluenga, Joko eta Ikuskizunen Gipuzkoako Lurralde Bulegoko arduraduna.
- Begoña Calderón Martínez, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako teknikaria.

Idazkaria: Beatriz Anitua Zabaleta, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzako teknikaria.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, guztiek horren berri izan dezaten.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote Segurtasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 2a.

Joko eta Ikuskizunen zuzendaria,
AITOR MIKEL URIARTE UNZALU.